

GIZARTE-BABESAREN KONTUA. 2024ko aurrerapena

# Euskal AEko gizarte-babesaren gastua 25.910 milioi eurokoa izan zen 2024an, aurreko urtean baino % 6,3 handiagoa

**Biztanleko gastua 11.707 eurokoa izan zen eta BPGri dagokionez % 26,4koa**

Euskal AEn gizarte-babesera bideratutako guztizko gastua, 2024an, 25.910 milioi eurokoa izan zen, hau da, % 6,3ko igoera eman zen 2023ko ekitaldiarekin alderatuta, 1.531 milioi euro gehigarriren baliokidea, Eustaten datuen arabera. BPGri dagokionez, gastu hori 2023an % 26,1 izatetik 2024an % 26,4 izatera igaro zen —hiru hamarreneko hazkundera izan zuen—. Era berean, per capita gastua % 5,8 hazi zen, 11.070 eurotik 11.707 eurora igaro baitzen 2024an.

Gizarte Babesaren Kontua Gizarte Babeseko Estatistika Integratuen Europako Sistemaren (ESSPROS) metodologiaren arabera egiten da, eta **edozein erakunde publikok edo pribatuk Euskal AEn gizarte-babeseko sistemetan** egindako gastua eta diru-sarrera zenbatzen ditu. Gizarte-babeseko gastuan administrazio-gastuak eta gizarte-prestazioetako gastua sartzen dira; azken horien barruan sartzen dira eskudiruzko ordainketak eta gizarte-babeseko sistemetatik etxeek jasotzen dituzten gauzazko prestazioak.

## Gizarte-babesaren datu eta adierazle nagusiak Euskal AEn. 2022-2024

|                                                                                         | 2022      | 2023 (p)  | 2024 (a)  | 2023(p)/2022 (%) | 2024(a)/2023 (%) |
|-----------------------------------------------------------------------------------------|-----------|-----------|-----------|------------------|------------------|
| <b>Gizarte babeseko gastu osoa</b>                                                      |           |           |           |                  |                  |
| Miliola eurotan                                                                         | 22.617    | 24.379    | 25.910    | 7,8              | 6,3              |
| Merkatu prezioa BPGaren %an                                                             | 26,1      | 26,1      | 26,4      | 0,0*             | 0,3*             |
| Eurotan, biztanleko                                                                     | 10.320    | 11.070    | 11.707    | 7,3              | 5,8              |
| Biztanleko EAP                                                                          | 11.045    | 12.153    | 12.908    | 10,0             | 6,2              |
| <b>GIZARTEPRESTAZIOETAKO GASTUA, FUNTZIOEN ARABERA (mila eurotan)</b>                   |           |           |           |                  |                  |
| GUZTIRA                                                                                 | 22.351    | 24.096    | 25.617    | 7,8              | 6,3              |
| Gaixotasuna/Osasun-atentzioa                                                            | 6.163     | 6.356     | 6.811     | 3,1              | 7,2              |
| Baliabiezintasuna                                                                       | 1.394     | 1.511     | 1.527     | 8,4              | 1,1              |
| Zahartzaroa                                                                             | 9.781     | 10.756    | 11.546    | 10,0             | 7,3              |
| Umezurtz-alargunak                                                                      | 2.062     | 2.236     | 2.343     | 8,4              | 4,8              |
| Familia / Seme-alabak                                                                   | 803       | 926       | 953       | 15,3             | 2,9              |
| Langabezia                                                                              | 1.158     | 1.205     | 1.248     | 4,1              | 3,6              |
| Etxebizitzanak                                                                          | 199       | 231       | 232       | 16,1             | 0,4              |
| Gizarte-bazterkeria                                                                     | 791       | 875       | 957       | 10,6             | 9,4              |
| <b>ADIERAZLEAK (eurotan)</b>                                                            |           |           |           |                  |                  |
| Gizarte-prestazioetako gastua, biztanle bakoitzeko                                      | 10.198    | 10.941    | 11.575    | 7,3              | 5,8              |
| Gizarte-prestazioetako gastua, biztanle bakoitzeko eta EAPn(1)                          | 10.915    | 12.012    | 12.762    | 10,1             | 6,2              |
| "Gaixotasun / osasun-laguntza" funtzioan egindako gastua, biztanle bakoitzeko           | 2.812     | 2.886     | 3.078     | 2,6              | 6,6              |
| "Zahartasunaren" funtzioan egindako gastua, 65 urteko edo gehiagoko pertsona bakoitzeko | 19.054    | 20.506    | 21.607    | 7,6              | 5,4              |
| <b>BPG mp KSE2010. 2022 oinarri (milioi euro)</b>                                       |           |           |           |                  |                  |
|                                                                                         | 86.714    | 93.243    | 98.290    | 7,5              | 5,4              |
| Batez besteko biztanleria                                                               | 2.191.631 | 2.202.376 | 2.213.109 | 0,5              | 0,5              |

(1) Jeros ahalmenaren parekotasuna

(\*) Aldea portzentajeazko puntutan

(p) Behin-behinekoa

(a) Aurrerapena

Data 2025eko Abenduaren 22a

Iturria: Eustat, Gizarte Babeseko Kontua

Gizarte-babeseko gastu osotik, 25.617 milioi gizarte-prestazioetako gastuari dagozkio, eta 293 milioi administrazio-gastuei. Gizarte-prestazioetako gastua % 6,3 hazi zen 2024an, hau da, 2023an baino 1.521 milioi gehiago.

### ***Gizarte-prestazioetako gastuaren analisía, funtzioen arabera***

**Gizarte-prestazioen** xehetasunak gastua zer funtziotan egiten den erakusten du, eta horiek guztiak hazi egin dira 2024an.

- "Gizarte-bazterkeria" funtzioak izan zuen ehuneko-hazkunderik handiena, % 9,4, hau da, aurreko urtean baino 82 milioi gehiago, eta 957 milioikoa izan zen 2024an.

- "Zahartzaroa" funtzioak barne hartzen du pentsioetara, mendetasunarekin lotutako prestazio ekonomikoetara eta gauzazko beste prestazio batzuetara bideratutako gastua, hala nola egoitza-zerbitzuak eta etxeko laguntza. % 7,3 hazi zen, balio absolutuetan hazkunderik handiena izan zuen gastua izanik, 2023an baino 790 milioi gehiago, eta 2024an 11.546 milioira iritsi zen. Hala ere, hazkunde hori aurreko urtekoa (% 10,0) baino txikiagoa da. Aurreko urteetan bezala, igoerarik handiena erretiroko eskudiruzko prestazioen zenbatekoari dagokio, zehazki, 2023an baino 666 milioi gehiago.

- "Gaixotasuna/Osasun-arreta" funtzioak % 7,2 egin zuen gora, hau da, 2023an baino 455 milioi gehiago (6.811 milioi). Funtzio horrek osasun-arretako zerbitzuetan eta aldi baterako ezintasunagatik prestazioetan egindako gastua barne hartzen du.

- "Bizirauleak" funtzioa —batez ere alarguntasun- eta umezurtz-pentsioak barne— % 4,8 hazi zen, 107 milioi gehiago izanik, eta 2024an 2.343 milioira iritsi zen.

- "Langabezia" funtzioan gastua 1.248 milioikoa izan zen, hau da, % 3,6ko hazkundea izan zuen, aurreko urtean baino 43 milioi gehiago. "Familia/Seme-alabak" funtzioa % 2,9 hazi zen, eta 953 milioi eurora iritsi zen.

- "Baliaezintasunera" bideratutako gastua % 1,1 hazi zen, 1.527 milioi eurora iritsiz.

- "Etxebizitza" funtzioak hazkunde txikiena izan zuen —% 0,4ko hazkundea— eta 232 milioi euroko guztizko gastua 2024an.

**Funtzio bakoitzak** gizarte-prestazioetako guztizko gastuan duen **pisu erlatiboa** aztertuta, ondorioztatzen da "Zahartzaroa" funtzioak jarraitzen duela gizarte-gastuaren buruan, 2024an guztizkoaren % 45,1 izanik (2023an baino ehuneko 0,5 puntu gainera).


Hurrengo gastu handiena "Gaixotasuna/Osasun-arreta" funtzioari dagokio, gizarte-prestazioetako gastuaren % 26,6rekin, eta 2023rekiko haren garrantzia handitu egin da (ehuneko 0,2 puntu).

Bestalde, "Gizarte-bazterkeria" adierazlearen pisua % 3,7ra igo da —2023an % 3,6koa izan zuen—.

Gainerako funtzioek euren pisu erlatiboa murriztu dute: "Bizirauleak" (% 9,1), "Baliaezintasuna" (% 6,0), "Langabezia" (% 4,9), "Familia eta seme-alabak" (% 3,7) eta "Etxebizitza" (% 0,9).

## Gizarte-prestazioetako gastuaren banaketa Euskal AEn, funtzioen arabera. 2024

Milaka euro eta ehunekoa



Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua

### Erakunde-unitateen parte-hartzea gastuan

Gizarte-babeseko gastua egiten duten erakunde-unitateei dagokienez, **Gizarte Segurantzako Sistemak eta Estatuko Administrazioak** 2024an egindako gastua guztizkoaren % 61,7 izan zen, eta % 7,0 hazi zen 2023aren aldean, 15.981 milioira iritsiz. Honako hauek dira eskudiruzko prestazioei dagozkien gastuak: Zahartzaroa (9.652 milioi), Bizirauleak (2.202 milioi) eta Aldi baterako ezintasuna (1.207 milioi).

### Gastua erakunde-unitateen multzoaren eta urtearen arabera (milioi euro). 2021-2024

|                                                          | 2021          | 2022          | 2023 (p)      | 2024 (a)      | Urteko aldakuntza-tasa (%) |            |             |
|----------------------------------------------------------|---------------|---------------|---------------|---------------|----------------------------|------------|-------------|
|                                                          |               |               |               |               | 2022/21                    | 2023(p)/22 | 2024 (a)/23 |
| Gizarte Segurantzako sistema eta Estatuko Administrazioa | 13.487        | 13.784        | 14.938        | 15.981        | 2,2                        | 8,4        | 7,0         |
| Euskal administrazioak                                   | 7.064         | 7.316         | 7.869         | 8.312         | 3,6                        | 7,6        | 5,6         |
| Erakunde pribatuak                                       | 1.460         | 1.517         | 1.572         | 1.617         | 3,9                        | 3,6        | 2,9         |
| <b>Gizarte babeseko gastu osoa</b>                       | <b>22.011</b> | <b>22.617</b> | <b>24.379</b> | <b>25.910</b> | <b>2,8</b>                 | <b>7,8</b> | <b>6,3</b>  |

(p)behin-behinekora

(a)aurrerapena

Data 2025eko Abenduaren 22a

Iturria: Eustat. Gizarte Babeseko Kontua

**Euskal Administrazioek** egindako gastua 8.312 milioikoa izan zen, hau da, guztizkoaren % 32,1 (% 5,6ko hazkundea). Igoera hori, batetik, "Gaixotasuna/Osasun-arreta" funtzioaren % 5eko hazkundeak eragin zuen, 4.991 milioi eurora iritsiz; eta, bestetik, gizarte-zerbitzuen sistema publiko osoaren gastuak —bertan sartzen dira Eusko Jaurlaritzako, foru-

aldundietako eta toki-administrazioetako erakundeenak—, % 6,6ko igoerarekin, hau da, 3.321 milioi eurora iritsiz. Gastu hauek nabarmendu ziren: "Gizarte-bazterkeria", 860 milioi, "Zahartzaroa", 811 milioi eta "Familia eta seme-alabak", 620 milioi.


Azkenik, **erakunde pribatuek** 1.617 milioi jarri zituzten —guztizkoaren % 6,2—, hau da, % 2,9ko gehikuntza izan zuten.

### **Gizarte-babeseko gastua Europarekin konparatzen**

Europarekin konparatzeari dagokionez, BPGren termino erlatiboetan gastuaren bilakaera inguruko herrialdeek Europan erakusten dutenaren antzekoa da. BPGrekiko mailarik altuena 2020an lortu zen; hurrengo urteetan jaitsi egin zen, eta 2024an apur bat igo zen.

Zehazki, Euskal AEn gizarte-prestazioetako gastua, BPGren ehunekoan neurtuta, ehuneko 0,2 puntu igo zen 2024an, % 26,1era iritsiz; horrek Espainiaren (% 25,1) gainetik eta 27-EBren (% 27,3) azpitik kokatzen du, aurreko urtearen aldean ehuneko 0,6 puntu igo baitzen, Eurostatek 2024rako egindako estimazioen arabera.

## **Gizarte-babeseko gastua, guztira. Nazioarteko alderaketa** **BPGren ehunekoan**




Iturria: Eustat. Gizarte babesaren kontua

Azkenik, Euskal AEn **biztanle bakoitzeko gizarte-prestazioen guztizko gastua** —Erosteke Ahalmenaren Parekotasunean (**EAP**) neurtuta— 12.762 izan zen; horrek, besteak beste, 27-EBko (10.942), Espainiako (9.044) eta Frantziako (12.610) batez bestekoaren gainetik kokatzen du. Taularen goiko muturrean Luxenburgo (19.104) eta Austria (14.314) daude.



**Gizarte-prestazioetako gastua herrialdeka. 2024**



Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua eta Eurostat. Social protection statistics-early estimates

**Informazio gehiago:**

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tlf: 945 01 75 62